



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 1a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzeko, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) Entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Bizitza Digitalari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Sahara Mendebaldea nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan, eta haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exigitzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu emakume feminista eta antimilitaristek gizarte bidezkoago bat, bakean bizi dena, lortzeko egindako lana. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu Rajoy lehendakaria eta PPren Gobernua kargutik berehala kendu beharra dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ustelkeria politika ororen aitzineko bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldeko XXXI. martxa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, NUPen Medikuntzako gradua ezartzen denean ikasleen praktikei dagokienez sortuko diren beharrianak direla-eta hartuko diren neurriei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Iruñeko Ospitaleguneko burutzari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdiak birmoldatzeko proiektuari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko sareko aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko zuzendari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tafallako Zentroko aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko Bigarren Hezkuntzako arte eta teknologia arloetako aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko zuzendari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko teknologia berrietako aholkulari lanpostuei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko ikus-entzunezkoen aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko teknologia berrietako aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Lizarrako Zentroko aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, kalitate-aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroan aholkulari batek erretiroa hartzearen ondorioz lanpostu hutsa betetzen duen aholkulari lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetan bitarteko irakasleek aholkulari lanpostuak betetzei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Fiterotik Cascantera doan NA-6900 errepideko zubiaren egoera dela-eta Fiteroko Udalari emandako informazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Ebron izan berri den uholdeari eta zenbait lubeta hautsi izanari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Araua, genero-ekitateari eta LGTBI arloko politikei buruzko politika publikoak aztertzeke eztabaida antolatzekeak (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzeko, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) Entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko maiatzaren 23an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: “Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzeko, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) Entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan”.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzararekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzeko, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) Entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan.

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuaren 2018ko gastuen aurrekontuan “Finka esperimentaleko instalazioak egokitzea” izeneko 720000 71510 6020 414300 partida dago, 500.000 euroko zuzkidura duena.

Inbertsio beharrak dituzten finkak Sabaizakoa, Orreagakoa eta Sartagudakoa dira.

Sabaizako finka INTIA SArI laga gabe dagoenez eta Nafarroako Gobernuaren titularitatekoa denez, bertan egin beharreko lanak inbertsio bereki gisa tramitatuko dira, 6. kapituluaren barnean.

Sartagudako finka Nafarroako Gobernuarena da, baina INTIA SAK erabiltzen du, eta Orreagako finka, berriz, Orreagako Kolegiataren titularitatekoa da eta INTIA SAK erabiltzen du.

Inbertsioen xedea, funtsean, eraiki nagusia berritzea eta instalazioetan beste hobekuntza osagarri batzuk egitea da, Sartagudakoaren kasuan; Orreagakoan fibrozementuzko estalkiak ordeztuko dira abeltzaintzako nabeetan eta nekazaritzako biltegian. Lanetarako behar den zenbatekoa 356.525 eurokoa da.

INTIAk aurkeztu duen txostenean jaso denez, inbertsioak ezin dira hurrengo ekitaldira arte a-
zteratu, instalazioen egoera txarra dela eta.

Horregatik, 2018ko gastuen aurrekontuan par-
tida berri bat sortzea proposatzen da, kode hau
izanen duena: 720000 71510 7400 414300
“INTIArentzako kapital transferentzia, Sartaguda-
ko eta Orreagako finka esperimentaletan inber-
tsioak egiteko”, eta ondoren 356.525 euroko zuz-
kidura ematea kreditu berezi baten bidez.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirila-
ren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua
ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte beran-
dutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indar-
dunaren kargura egin behar bada eta aurrekon-
tuan krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak,
Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatu-
rik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako
Parlamentuari, kreditu berezi bat ematekoa.

Aurreko guztiagatik, bidezkoa da foru lege hau
oneste, Ogasuneko eta Finantza Politikako kon-
seilariak proposatuta.

1. artikulua. Aurrekontuko partida sortzea.

2018ko gastuen aurrekontuan kode hau duen
partida sortzen da: 720000 71510 7400 414300
“INTIArentzako kapital transferentzia, Sartaguda-
ko eta Orreagako finka esperimentaletan inber-
tsioak egiteko”.

2. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

356.525 euroko kreditua ematen da Landa
Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administra-
zioko Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honetan apli-
katuko da:

Partida	Zenbatekoa
720000 71510 7400 414300 partida, “INTIArentzako kapital transferentzia, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egiteko”	356.525 €

3. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hori aurrekontuko partida honen
kargura finantzatuko da:

Partida	Zenbatekoa
720000 71510 6020 414300 “Finka esperimentaletako instalazioak egokitzea”	356.525 €

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Bizitza Digitalari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2018ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu eta 2018ko apirilaren 20ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2018ko ekainaren 25eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Sahara Mendebaldea nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan, eta haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exigitzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Sahara Mendebaldea nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan, eta haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exigitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak oso positibotzat jotzen du Auzitegi Nazionalaren autoa, zeinaren bidez Espainia de iure Sahara Mendebaldearen “potentzia administratiboa” dela adierazten baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Marokoko Erresumari exigitzen dio Sahara Mendebaldeko lurralde okupatueta giza eskubideak zorrotz errespetatzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-urraketak bukatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuak premiatzen ditu luzamendutan ibili gabe susta dezaten Sahara Mendebaldeko gatazkaren konponbide iraunkor eta bidezkoa, zeina Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea gauzatzetik helduko baita.

5. Nafarroako Parlamentuak berriro ere salatzen du Marokoko Gobernuak Sahara Mendebaldeko natur baliabideen espoliazioa egitea, epaia epai.

6. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Sahara Mendebaldean bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Sahara Mendebaldean dauzkan eginkizunak zabaldu behar ditu. Hortaz, Nazio Batuak premiatzen ditugu Misiolari ahalmena eman die-

zaion sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko lurralde okupatueta.

7. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasunari berriz ere exigitzen dio Marokoko Erresumarekiko Lehentasunezko Akordioan giza eskubideak errespetatzeari dagokionez ezarritako klausula betearaz dezan.

8. Nafarroako Parlamentuak zorionak eman nahi dizkio Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari, errefuxiatu-kanpalekuetan egiten duten lan funtsezko eta erabakigarriagatik.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako erakunde publikoak premiatzen ditu laguntza solidario eta humanitarioa areagotu eta ematen jarrai dezaten, hala Tindufeko kanpalekuetako errefuxiatuei nola lurralde okupatueta sahararrei.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren ekimen politikoak susta ditzan, justiziazko eta behin betiko konponbide bat lortzera bideratuak, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubide zilegiaren defentsan, erreferendum libre eta erregular baten bidez, deskolonizazio-prozesu bukatugabearen azken urrats gisa.

11. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du areagotu ditzan saharar herriarekiko lankidetzeta eta harentzako laguntza humanitarioa, bai errefuxiatu-eremueta bai lurralde okupatueta ere, kezka egiaztatu baitu Lankidetzarako Espainiako Agentziak bere ekarpenak murriztu egin dituela azken urteotan”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu emakume feminista eta antimilitaristek gizarte bidezkoago bat, bakean bizi dena, lortzeko egindako lana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Bakearen eta Armagabetzearen aldeko Emakumeen Nazioarteko Egunean:

– Aintzatetsi egiten du emakume feminista eta antimilitaristek gizarte bidezkoago bat, bakean bizi dena, lortzeko egindako lana, eta orain dela hainbat urtetik hona egiten ari diren proposamenak bere egiteko konpromisoa hartzen du.

– Konpromisoa hartzen du eta dei egiten die Nafarroako erakunde guztiei emakumeen parte-hartze aktiboa eta protagonista berma dezaten gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko prozesuetan, bai eta geroko memoria-prozesuetan nahiz elkarbizitza, egia, erreparazioa eta justizia eraikitzeko prozesuetan ere.

– Onartzen du gerrak eta gatazkak ezin zuri-tuzkoak direla eta neurri handi batean gerren eta gatazken ondorio dela milioika pertsona behartuta egotea beren etxeak eta bizilekuak uztera egoera kritiko eta arriskuz beteriko batean. Ondorioz, Parlamentu honek dei egiten die Nafarroako erakunde, enpresei eta gizarteari beren esku dauden neurriak har ditzaten gerrekiko eta gatazkekiko lankidetzara, aktiboa nahiz pasiboa, ekiditeko.

– Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideak susta eta ziurta ditzan hezkidetzaren eta bakerako hezkuntzaren zeharkakotasuna lortzeko prestakuntza formal nahiz informaleko esparruetan”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu Rajoy lehendakaria eta PPren Gobernua kargutik berehala kendu beharra dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak uste du Rajoy lehendakariak eta PPren Gobernuak ezin dutela jarraitu eta ezinbestekoa dela kargutik kentzea.

2. Nafarroako Parlamentuak dio Diputatuen Kongresuan urgentziarik handienarekin lortu behar direla PPren Gobernua amaitzea ahalbidetuko duten akordioak.

3. Nafarroako Parlamentuak dio Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren aurka dagoela eta

aurrekontu horiek goitik behera aldatu behar direla PPren Gobernuari amaiera ematen zaionean.

4. Nafarroako Parlamentuak dio indargabetu egin behar direla politika eta lege austerizidak (lan-erreforma, aurrekontu egonkortasunari buruzko lege organikoa, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua...) PPren Gobernuari amaiera ematen zaionean”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ustelkeria politika ororen aitzineko bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik sendo eta erabatekoena adierazten du ustelkeria politiko ororen, jardunbide demokratiko okerren edo erakunde nahiz enpresa publikoak beren kudeatzaileen aberaste pertsonalerako erabiltzearen aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak alderdi politikoen finantzaketa dagokionez gardena izateko eta alderdien legez kanpoko finantzaketa errefusatzeko eta salatze konpromisoa hartzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak Gobernuak lehendakari eta Alderdi Popularreko lehendakari Mariano Rajoy Breyri eskatzen dio dimisioa eman

dezan, justizia auzitegiek ustel deklaratu duten alderdi politiko baten arduradun nagusia den aldetik.

4. Nafarroako Parlamentuak demokrazia zaintzeko konpromisoa hartzen du, bai erakundeetan, bai talde parlamentarioetan, bai eta talde horiek osatzen dituzten alderdi politikoetan ere.

5. Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die Diputatuen Kongresuan ordezkaturik dauden alderdi politikoei, egitez nahiz ez-egitez ustelkeriaren erantzule diren ordezkari publikoak erakundeetatik baztertzera bideratutako ekimenak babes ditzaten”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldeko XXXI. martxa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldeko XXXI. martxa, zeina ekainaren 3rako –igandea– deitu baitu Poligonoaren aurkako Batzarrak, bai eta helburu horrekin deitzen diren mobilizazio guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Bardeako tiro poligonoaren aurka eta maniobra militarrek berehala bukatzearen eta tiro poligonoa behin betikoz ixtearen eta eraistearen alde dagoe-la.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Bakearen Kultura sustatzea, gatazka

politikoak eta sozialak bakearen eta justizia sozialaren bideetatik birdefinitzen eta konpontzen laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, gobernu zentralak geldiarazi egin behar du bere armakarrera, eta defentsarako aurrekontuan aurreikusitako igoera herritarren beharrezko sozialei erantzutera bideratu behar du.

5. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da gobernu zentralak indargabetu dezan Bardeako tiro poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, NUPen Medikuntzako gradua ezartzen denean ikasleen praktikei dagokienez sortuko diren beharrianak direla-eta hartuko diren neurriei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, NUPen Medikuntzako gradua ezartzen denean ikasleen praktikei dagokienez sortuko diren beharrianak direla-eta hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Parlamentuan maiatzaren 17an adierazi zenuenez, Nafarroako Ospitaleguneko, eskualde-zentroetako eta osasun etxeetako instalazioak prest daude NUPeko Medikuntzako gradua ezarri ondoren ikasle berriek egin beharreko praktikaldiek sortutako beharriari erantzuteko.

Kontuan hartuta zerbitzu asko gainezka dardela,

Nola antolatuko duzue hori dena? Zer neurri hartuko duzue?

Praktikaldiak beste zentro pribatu batzuetara zabaltzeko aukera gogoan al darabilzue?

Beste espezialitate batzuetako BAME prestakuntza eskatu eta zabalduko al duzu, Lizarrako eta Tuterako ospitaleetan daudenez gain? Zein?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Iruñeko Ospitaleguneko burutzari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko Ospitaleguneko burutzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

– Iruñeko Ospitalegunea noiz arte egonen da burutzarik gabe, lehengo arduradunak kargua utzi ostean?

– Zer figura sortu nahi duzue eta figura hori noiz izanen da irmoa?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdiak birmoldatzeko proiektuari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdiak birmoldatzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

– Zer exekuzio-fasetan dago Nafarroako Ospitaleguneko larrialdiak birmoldatzeko proiektua?

– Zeri zor zaio atzerapena? Zein da jarduketaren kronograma?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko sareko aholkulari lanpostuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko sareko aholkulari lanpostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dugu:

Irakasleari Laguntzeko Tuterako Zentroko sare aholkulari lanpostuari dagokionez:

1.- Oraingo aholkularia noiztik ari da lanpostu hori betetzen?

2.- Zer bidetatik sartu zen lanpostuan?

2.1 Zer irizpide baliatu ziren izendapena egiteko?

2.2 Nola frogatu du aholkulari lanpostuan aritzeko egokitasuna edo gaitasuna?

3.- Gainditu al du Departamentuaren balorazio-ebaluazio prozesua?

3.1 Zein egunetan gainditu du?

3.2 Zeintzuk eta noiz?

4.- Aholkularitza horretako egonaldiaren iraupena luzatu al diote inoiz?

Deialdi publiko bidez sartu baldin bazen, zer zioen arau horrek iraupenari buruz eta Irakasleari Laguntzeko Zentroko lanpostu batera berriz aurkeztu aitzin ikasgelara itzuli behar izateari buruz?

5.- Zenbat denbora igaro da haren lehen izendapenetik, sartzeko modua zein ere izan den?

6.- Departamentuak nola baloratzen ditu deialdirik gabeko izendapen-urteak, deialdi indardunak ezartzen duen egonaldi-zenbaketa osoaren aldean?

Corellan, 2018ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko zuzendari lanpostuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko zuzendari lanpostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dugu:

Irakasleari Laguntzeko Iruñeko Zentroko zuzendari lanpostuari dagokionez:

1.- Oraingo aholkularia noiztik ari da lanpostu hori betetzen?

2.- Zer bidetatik sartu zen lanpostuan?

2.1 Zer irizpide baliatu ziren izendapena egiteko?

2.2 Nola frogatu du aholkulari lanpostuan aritzeko egokitasuna edo gaitasuna?

3.- Gainditu al du Departamentuaren balorazio-ebaluazio prozesua?

3.1 Zein egunetan gainditu du?

3.2 Zeintzuk eta noiz?

4.- Aholkulari-lanpostuan egon den bitartean bere egonaldiaren luzapenik izan al du?

Deialdi publiko bidez sartu baldin bazen, zer zioen arau horrek iraupenari buruz eta Irakasleari Laguntzeko Zentroko lanpostu batera berriz aurkeztu aitzin ikasgelara itzuli behar izateari buruz?

5.- Zenbat denbora igaro da haren lehen izendapenetik, sartzeko modua zein ere den?

6.- Departamentuak nola baloratzen ditu deialdirik gabeko izendapen-urteak, deialdi indardunak ezartzen duen egonaldi-zenbaketa osoaren aldean?

Corellan, 2018ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Irakasleari Laguntzeko Tafallako Zentroko aholkulari lanpostuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Irakasleari Laguntzeko Tafallako Zentroko aholkulari lanpostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dugu:

Irakasleari Laguntzeko Tafallako Zentroko aholkulari lanpostuari dagokionez:

